

H_{LH4}

2016/2017



Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

***Euskal Hizkuntza
Gaitasuna***

LHko 4. maila

Jarraibideak

Probak bi zati ditu: bata irakurriaren ulermenarena, eta bestea, idazmenarena.

- Probako **lehenengo zatian** zenbait testu irakurriko dituzu, eta horiei buruzko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

- Probako **bigarren zatian** idazlan bat egin beharko duzu, eman zaizkizun jarraibideei kasu eginez.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

1. zatia - Irakurmena

B A L E A K



Baleak edo **mistizetoak** (lat. *mysticeti*) itsas ugaztunak dira. Sei generotan banaturiko hamahiru espezie daude, lau familiatan banaturik.

Biologia

Gaur egungo animaliarik handiena da; 30 m inguru izaten da luze, eta 150 tonako pisua har dezake. Larrua leuna, ilerik gabea du, eta haren azpian gantz-geruza du. Baleak uraren azalera igo behar izaten du arnasa hartzera, ugaztuna izaki, oxigenoa airetik hartzen du eta. Aurreko gorputz-adarrak hegal bihurtuak ditu igeri egiteko, gorputzaren alde banatara. Isatsa etzana du eta ez zutik, arrainek bezala. Ahoan ez du hortzik; haien ordeaz, adarkizko xaflak eta bizarrak ditu, eta mihi luzea ere bai.

Oskoldun txikiak, algak eta planktona janez elikatzen da; horretarako, bizarretatik barrena ura xurgatu eta kanporatu egiten du berriro; hala, urarekin batera sartzen zaion janaria bereganatzen du. Bizarren eginkizuna janariari eustea da; horregatik dute sarearen tankera. Arnasa hartzeko, bi zulo ditu buru gainean eta ur azpitik azalera igotzen denean, indar handiz jaurtitzen du kanpora biriketako airea bi zulo horietatik. Jaurtitzen duen ur-zorrotadari esker jakiten zuten arrantzaleek balea non zegoen. Balea luzaro egon daiteke ur azpian, bihotza poliki mugitzen duelako. Baleak ume bakarra izaten du aldiko.

Animalia hauek entzumen fina dute eta soinuak igortzeko ere gai dira elkarren artean komunikatu eta talde osoa biltzeko.

Balearen ekonomia eta ehiza

Balearen parte guztiak aprobetxatzen dira. Hala, koipe, gihar eta hesteetatik xaboiak egiten dira; gibeletik olioak; hezurretatik animalientzako elikagaia lortzen da, eta haragia oso estimatua da jateko. Gaur egun, garai bateko eskuzko arpoiaren ordean, arpoi leherkaria jaurtitzen zaio baleari kanoi berezi batez. Kanoi hori 1860an asmatu zen; ordurako, ordea, hainbat balea mota desagertzen hasiak ziren.

Hainbat hitzarmen izenpetu dira nazioen artean bale-arrantza debekatzeko. Gaur egun, ia munduko herrialde guztiek dituzte akordio horiek sinatuta; hala ere, balea harrapatzen segitzen da eta desagertzeko arriskuan dago. Norvegia, Japonia eta Groenlandia dira herrialde ehiztari nagusiak.

Euskal Herrian ere, balea arrantzak garrantzi handia izan zuen XIII. eta XVI. mendeen bitartean.

Euskal Herrian

Bizkaiko golkoan, gaur egun ere zetazeo mota batzuk bizi dira, Euskal Herriko kostatik ez oso urrun.

Beste garai batzuetan, balea-espezie handiak arruntak ziren Euskal Herriko uretan. Lotura estua zegoen, beraz, herri arrantzaleetan animalia hauekin. Horren erakusgarri dira kostaldeko hainbat herritako armariak, non balea agertzen baita. Bermeo, Lekeitio, Mutriku, Getaria (Gipuzkoa), Zarautz, Hondarribia, Hendaia, Getaria (Lapurdi) eta Biarritz herrietako kasuak dira.



Balea Kantauri itsasoetatik urrundu zenean, euskal arrantzaleak atzetik joan ziren; halaxe iritsi ziren Ternua eta Kanadaraino.

WIKIPEDIA (moldatua)

1. Baleak...

- A. arrainik handienak dira.
- B. ugaztunik handienak dira.
- C. animaliarik arriskutsuenak dira.
- D. arrainik indartsuenak dira.

2. Testuak dioenez, zenbat balea espezie ezberdin daude?

- A. Sei.
- B. Lau.
- C. Hamahiru.
- D. Hogeita hamar.

3. Idatzi baleek jaten dituzten hiru elikagai.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Oskoldun txikiak, algak eta planktona.

4. Testuaren arabera, zertarako erabiltzen dituzte bizarrak?

- A. Igeri egiteko.
- B. Arnasa hartzeko.
- C. Janariari eusteko.
- D. Soinuak igortzeko.

5. Nola jakiten zuten arrantzaleek non zeuden baleak?

- A. Isatsarekin mugitzen duten uragatik.
- B. Hegalekin sortzen dituzten olatuengatik.
- C. Xurgatzen duten uragatik.
- D. Jaurtitzen duten ur-zorrotadagatik.

6. Idatzi baleetatik lortzen diren lau produktu.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hauetako hiru produktu aipatzea: Xaboiak / Olioak / Animalientzako elikagaia / Haragia
2	Aurreko lau produktuak aipatzea.

7. Testuaren arabera, zergatik daude baleak desagertzeko arriskuan, gaur egun?

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Adibidez: - Baleak harrapatzen jarraitzen dutelako. - Jende askok harrapatzen dituelako. - (Japonian, Norvegian eta Groenlandian/Toki batzuetan) balea gehiegi ehizatzen edo harrapatzen direlako. - Sinatutako akordioak errespetatzen ez direlako. Erantzunean ondorengo hitzez baliatzea aintzat har daiteke: asko/gehiegi edo segitu/jarraitu. Bestelako erantzunak zailagoak dira.

8. Gaur egun, zer erabiltzen da baleak harrapatzeko?

- A. Eskuzko arpoia.
- B. Geziak.
- C. Sare handi batzuk.
- D. Arpoi leherkaria.

9. Balearen elikadura testuko zein ataletan aipatzen da?

- A. Balearen ekonomia eta ehiza.
- B. Biologia.
- C. Ez da inon azaltzen.
- D. Euskal Herrian.

10. Irakurri duzun testua zer da?

- A. Narrazio bat.
- B. Azalpen testu bat.
- C. Instrukzio testu bat.
- D. Albiste bat.



Eureka! Zientzia Museoak “ANIMALIA” aretoa inauguratu du, animaliei buruzko jakintza eta haiekiko errespetua sustatzeko.

Donostia, 2015eko maiatzaren 7a. Eureka! Zientzia Museoaren “ANIMALIA” areto berriak hiru ekosistema bereizi ditu, eta giro berezi horien adierazgarri diren 20 bizidun espeziez gora jarri ditu erakusgai, 260 m²-ko azalera duen instalazio batean.




Zer da “ANIMALIA”?

Areto honetan hiru giro islatu nahi izan ditugu: oihan tropikala, basamortua eta itsasoa, azken hori itsas baltsa baten bitartez. Giro berezi honetan, bisitariek aukera izango dute ekosistema bakoitzean bizi diren animalia adierazgarrienak ikusteko.



OIHAN TROPIKALA

- Pitoi-suge albinoa
- Suge koral aizuna
- Gezi-igela
- Urre-koloreko igela
- Uretako dortoka
- Lehorreko dortoka
- Kaiman-dortoka
- Eskorpioi beltza
- Belaun gorridun tarantula
- Intsektu makila erraldoia
- Intsektu hosto erraldoia
- Pantera-kamaleoia
- Iguana berdea
- Kaiman betaurrekoduna



BASAMORTUKO GIROA

- Lehoinabar-geckoa
- Dragoi bizarduna



ITSAS BALtsa

- Itsas izar gorria
- Itsas trikuak
- Gorgonia
- Posidonia-bola
- Itsas txapela
- Itsas belakia
- Itsas kurkuiluak
- Karramarro ermitauak
- Freddy arraina
- Muskuilu eta ostrak
- Katu-marrazoa

Ordutegia eta prezioa:

“ANIMALIA” areto berria museoko erakusketa iraunkorraren barruan dago, eta museoko sarrera ordaintzeak aukera ematen du aretoari bisitaldi librea egiteko.

- 18 urtez azpikoak, 65 urtez gorakoak eta familia ugariak: 7 € / pertsona bakoitzeko.
- Helduak: 10 € / pertsona bakoitzeko.

Museoa zabalik egoten den ordutegian ikus daiteke gunea:

- Astelehenetan, 10:00etatik 16:00etara.
- Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara.
- Larunbat, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 20:00etara.

11. Zertarako inauguratu dute “ANIMALIA” aretoa?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Erantzun osatu gabea. Bi helburuetako bat aipatzea: - Animaliei buruzko jakintza sustatzeko helburuarekin. - Animaliekiko errespetua sustatzeko helburuarekin. Adibidez: - Animalia hauek nolakoak diren ikasteko helburuarekin sortu dute. - Haiekiko (animaliekiko) errespetua sustatzeko helburuarekin. - Guk ikasteko zer beste animalia berezi dauden.
2	Bi helburuak aipatzen badira: - Animaliei buruzko jakintza eta haiekiko errespetua sustatzeko helburuarekin.

12. Zenbat giro aipatzen dira testuan ?

- A. Zazpi.
- B. Hogeita zazpi.
- C. Hiru.
- D. Ez da horrelakorik aipatzen testuan.

13. Zein da eskorpioi beltzaren ekosistema?

- A. ITSAS BAL TSA.
- B. OIHAN TROPIKALA.
- C. EKOSISTEMA ADIERAZGARRIA.
- D. BASAMORTUKO GIROA.

14. Zergatik jarri dituzte animalien irudiak testu honetan?

- A. Testua apaintzeko soilik.
- B. Ekosistema bakoitzeko animalia ereduak erakusteko.
- C. Argazkietakoak animalia bitxiak direlako.
- D. Denak obiparoak direlako.

15. Museoko sarrera ordainduz gero, zer bisitatu dezakezu?

- A. ANIMALIA aretoa bakarrik.
- B. Astegunetan bakarrik museo osoa.
- C. Museo osoa areto berria barne.
- D. 18 urtez azpikoa banaiz museoko erakusketak soilik.

16. Zein egunetan ixten dute lehenago museoa?

- A. Ostiraletan.
- B. Igandeetan.
- C. Egunero ixten dute ordu berean.
- D. Astelehenetan.

17. Non dago ANIMALIA aretoa?

- A. Aquariumean.
- B. Planetarioan.
- C. Eureka! Zientzia Museoan.
- D. Euskal Zientzia Museoan.

18. 70 urteko aitonak gonbidatu zaitu museora. Zenbat ordainduko du sarrera bakoitzeko?

- A. Aitonak 10 euro eta nik 7 euro.
- B. 7 euro bakoitzeko.
- C. 10 euro bakoitzeko.
- D. Sarrerak oparitu dizkiote eta dohain sartu gara.


2. zatia - Idazmena

Orain, zeu zara idazlea... zure bidaietako bat idatziko duzu!

Bidaia ahaztezin hura

Urtero, bai familiarekin, bai gelakideekin, bidaia batzuk egiten dituzu. Toki ezberdinak bisitatu dituzu: museo bat, akuarioa, planetarioa, natura interpretatzeko zentro bat...

Aukeratu bidaia horietako bat, eta idatzi zer egin zenuen: nola joan zineten, egindako bisita, zure sentipenak...



Ongi kontatu egindako bidaia, hasi eta bukatu arte: nola, nora eta norekin joan zinen, nolakoa zen tokia, zer egin zenuten, nola sentitu zinen...

Idazlana egiten hasi aurretik, hurrengo laukian ideia labur batzuk apuntatu ahal dituzu jarraibide gisa erabiltzeko.

A large rectangular area defined by a dashed line, intended for writing ideas.

19. Idatzi zure bidaia eta gogoratu:

- Ongi eta txukun idatzi.
- Bereizi testua paragrafoetan.
- Ortografia arauak errespetatu.
- Eta ez ahaztu puntuazio-markak erabiltzea!

This image shows a full page of white paper with horizontal dotted lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page, providing a guide for handwriting practice. There are no margins, text, or other markings on the page.

***Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula***

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	
Kontakizunaren koherentzia	
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	

19. itema – Guztira

--

Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 4. maila)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan eman behar da puntuazioa: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari 0tik 3ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

	0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...) ▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza. ▪ <u>Marjinak</u> ongi zehazturik daude. ▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Kontakizunaren koherentzia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Egitura</u> argia: gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu). ▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan. ▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da. ▪ <u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte. ▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ <u>Pertsonaien ezaugarritzea</u>: pertsonalak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<i>orduan</i> ; <i>geroago</i> ; <i>hala ere</i> , etab.; ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). ▪ <u>Komuntadura</u> akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). ▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. ▪ <u>Erregistroa</u>: argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza. ▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). Pertsonaiei eta ekintzei buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa, eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

1. adibidea

Ni egun batean nire familiaekin
joan nintzen planetario batera deitzen
zen Ikar Diktatzen. Joan nintzen amarekin
eta aitarekin entrada bukatu ostean
esalo ziren. Zortzi gurean planeta argazki
batsuk ikusi nuen eta gero ikusi nuen
konkursa bat eta partzipatu nuen gero
galdera batsuk ~~eta~~ galdera zidaten eta
hamar galdera ziren eta hortik zortzi
engi egun nuen eta beste partzipanteak
ni ~~beste~~ bakin galdera gutxiago engi
eratzun zuten eta hirabasi nuen Zoria.
Zoria teleskopio bat zen eta teleskopioa pre-
sionalekoa zen. Ordik etxera joan nitzen
eta teleskopioa utzi nuen. Gero akuario
batera joan nintzen eta azkarikatu ikusi
nuen eta engi paratu nuen azkarikatu
osoa nire familiaekin saltatzen
joan nintzen Burgesimera afaltzera eta 4
anburgetak, 4 kokakola eta 4 pakete patata.
gero lona egitera joan nintzen etxera.
Urengo ~~egun~~ egunean teleskopioa rekin
egun nintzen probatzen.

1. adibidea

Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula		Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia		0
Kontakizunaren koherentzia		1
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna		1
19. itema – Guztira		2

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Ez da txukuna. Zirrimarra asko daude.
- Letra. Argi samarra bada ere, azpimarrek irakurgarritasuna zailtzen dute.
- Marjinak. Hobeki zehazturik egon litezke, ezkerrekoak batik bat.
- Ortografia. Akats asko daude, bereziki txistukariekin (“Zartu”, “Zaria”, “Konkurso”, “Arratzalde”) eta “h”-rekin (“Ortik”, “Irabazi”, “Anburgesak”, “Urrengo”, “Distiratzu”).

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetako bakar bat ere ez du guztiz ongi bete. Beraz, dagokion puntuazioa 0 da.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Ez da argia, barne egitura argia ez denez, kosta egiten da kontakizuna osatzen duten ekintzen arteko hurrenkera kronologikoa eta loturaz jabetzea.
- Paragrafo kopurua. Testua paragrafo bakar batean egituratuta dagoenez, zaila da kontakizuna osatzen duten ideien arteko lotura semantikoa antzematea. Kanpo egitura ez da egokia, izenbururik ez eta paragrafo bakar batean idatzita dagoelako. Puntuazioa ere ez da batere egokia, ez duelako koma bakar bat ere erabiltzen, eta honek asko zailtzen du kontakizunaren haria jarraitzea.
- Bilakaera tematikoa. Zaila da bilakaera tematikoa hautematea.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskera. Perpausen arteko joskera oso pobrea da. Perpaus sinpleak eta oso luzeak erabili ditu, guztietan “eta” emendiozko juntagailua erabiliz. Testu antolatzaile bakarria erabili du, denborazkoa (“Gero”).
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetako bakar bat bete du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi pobrea darabil. Perpausak bata bestearen atzean idatzi ditu “eta” emendiozko juntagailua erabiliz. Bi mendeko perpaus bakarrik idatzi ditu: behin, modu okerrean, erlatibozkoa (“Joan nintzen planetario batera deitzen zen Izar distaratsu”), eta gero, ongi, denborazkoa (“Sartu ginenean”).
- Aditzak. Aditz-denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura. Pluralgilea oro har gaizki erabili du.
- Deklinabidea. Ergatiboaren erabileran, gehienetan, akatsak ditu. Hemen aipagarria da batzuetan kasu-marka bereizita idatzi duela (“Familia rekin”, “Teleskopioa rekin”).
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Zenbait hitz modu desegokian idatzi ditu (“Konkurso”, “Partizipanteak”, “Profesionalekoa”, “Partizipatu”, “Entrada”).

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik bakar bat bete du. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

2. adibidea

Kaixo Jonan mais eta kontatuta diquet nola egin
nuen bidai bat. Lehenik dena presentatu genuen:
lekuta, ura, edaria... Gero hegaskinera joan ginen
museoa E.E.U.U. zegoelako. Hegaskinera oso ongi
paratu nintzen nire arreba eta nire anaia ere
kin; lekutatik jan genituen, kan bat bat edan
genuen eta askenik telebista ikusi genuen.
Nire ama ordenagailu bat heman zidan hegaskinera
sartu baino lehen. Nire ama ere oso
ondu para zuen; nire aita ordenagailu, musikar
eta tablet bat erosi zizun garrantzako; nik
eraz nion ez nuela nahi ordenagailua eta tableta
orduan etxean legez ezek itillaz eparitu zidan.
Askem minutuak denak kumunera joan ginen.
Hegaskina Londresen geratu zen. Museoa
oso gustora egin ginen. Hegaskina galdu genuen
museoa oso gustora egin ginelako, horregatik
habet batean egin genuen le. Askemay hegaskina
hastu genuen eta etxera bueltatu gi-
nen.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3	
Aurkezpena eta ortografia	1
Kontakizunaren koherentzia	1
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
19. itema – Guztira	4

2. adibidea

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun eta zirrimarrarik gabe idatzita dago.
- Letra. Argixeagoa izan liteke, batzuetan kosta egiten baita ulertzea.
- Marjinak. Ongi zehazturik daude.
- Ortografia. Akatsen bat egin du txistukariekin ("*guztora*") eta "h"-rekin ("*heman*").

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetako bakar bat bete du ongi. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Ez da argia. Ideiak modu kronologikoan kontatzen saiatu da, baina perpausen arteko kohesio desegokiak asko zailtzen du ulergarritasuna. Izan ere, ideien arteko lotura ez da argia.
- Paragrafo kopurua. Testua paragrafo bakar batean egituratuta dagoenez, zaila da ideien arteko lotura semantikoa antzematea. Puntuazioa ere ez da egokia, komaren eta puntuaren erabilera nahasgarria du-eta. Izan ere, idazlanaren kanpo egitura ez da egokia, hau da, izenbururik ez duelako eta kontakizuna paragrafo bakar batean idatzita dagoelako.
- Bilakaera tematikoa. Zaila bada ere, bilakaera tematikoa hautematen da.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskera. Perpausen arteko joskera pobrea da, perpaus sinpleak bakarrik erabili dituelako. Hala ere, antolatzaile batzuk erabili ditu ("*Lehenik*", "*Gero*", "*Baino lehen*", "*Horregatik*", "*Azkenean*").
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetako bakar bat bete du ongi. Beraz, dagokion puntuazioa puntu 1 da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi pobrea darabil. Ia beti perpaus sinpleak baina zuzen erabili ditu. Hala ere, ongi erabili ditu mendeko perpaus konpletibo bat ("*nik esan nion ez nuela nahi*") eta zehar galdera bat ("*kontatuko dizuet nola egin nuen*").
- Aditzak. Aditz-denborak zuzen erabili dituen arren, aditz baten erregimena gaizki erabili du ("*oso ongi pasatu nintzen*", "*nire anai ere ondo pasa zuen*").
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ergatiboaren erabileran batik bat, zenbaitetan huts egin du.
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Zenbait hitz modu desegokian idatzi ditu ("*bidai*", "*anai*", "*eman*").

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetako 4 bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

3. adibidea

Urederrako txangoa:

Nik, nire amara, aitona, amarela anaia
gion ginen.

Oso polita zen paisaia, ura urdin-urdi-
ina zen, zuhaitzak, landareak...

Uretan arraina asko zauden eta ez
zegoen gende asko.

Herria gorago zegoen, herriak etxe
gutxi zituen baina frontoiak eta jate-
lekuak zuten.

Jatetxean oso ongi jaten zen, migak,
onjak, makarroiak... den-den
jaketxean egina.

Jan ondoren herrian egon ginen,
nik frontoian eskupilatara jolasten
eta besteak herriak paseatzen, aito-
na izan ezik nirekin jolasten
geratu zen.

Ordu bat edo bi pasa ondoren
kotxea hartu eta iruñera bu-
eltatu ginen.

Kotxean gindoazenean ardi
artalde batekin topatu ginen
eta minutu batzuk itxoi gendun
azkenean Iruñara iritsi ginen.

Amaiera

3. adibidea

<i>Zuzentzaileak edo irakasleak bete beharreko puntuazio taula</i>	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	2
Kontakizunaren koherentzia	2
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
19. itema – Guztira	6

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun idatzita dago. Itxura ona eta zirrimarrarik gabea.
- Letra. Argia eta irakurterraza da.
- Marjinak. Oro har, ongi zehazturik daude.
- Ortografia. Akats gutxi daude (letra larriren batekin huts egin du).

Alderdi honen balorazioa: oro har, lau baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Argia da. Gertaerak kronologikoki eta ongi kontatu ditu.
- Paragrafo kopurua. Idazlanaren kanpo egitura egokia da, izenburua eta hainbat paragrafo ditu, nahiz eta izenburua ez dagoen ahal bezain ongi nabarmenduta. Testua paragrafoetan egituratuta badago ere, batzuetan kosta egiten da haria jarraitzea puntuazioa ez delako egokia. Izan ere, zenbaitetan koma falta da.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da; erraz jarraitzen da kontakizuna. Argi hautematen dira pertsonaiak eta lekuak.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskera. Perpausen arteko joskera. Paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude. Hala ere, testu antolatzaile gutxi erabili ditu, denborazkoak gehienbat: mendeko perpausak ("Jan ondoren", "Ordu bat edo bi pasa ondoren", "Kotxean gindoazenean") eta denborazko aditzondo bat ("Azkenean").
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.


Alderdi honen balorazioa: oro har, sei baldintzak bete ditu. Beraz, 2 puntuko puntuazioa dagokio.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi oso aberatsik ez badarabil ere, perpausak modu zuzenean erabili ditu. Bestalde, mendeko perpaus mota bakarra erabili du hirutan: behin aditza jokatuta ("Kotxean gindoazenean") eta bitan aditza jokatu gabe ("Jan ondoren", "Ordu bat edo bi pasa ondoren").
- Aditzak. Aditzak eta aditz-denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Akats batzuk daude ("Arraina asko", "Egon ginen, nik eskupilotara jolasten").
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Zenbait hitzekin ez du asmatu ("Onjoak", "Migak").

Alderdi honen balorazioa: oro har, sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 2 puntu dira.

4. adibidea



**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Aurkezpena eta ortografia	3
Kontakizunaren koherentzia	3
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	3
19. itema – Guztira	9

4. adibidea

Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukun idatzita dago. Itxura ona eta zirrimarrarik gabea.
- Letra. Argia eta irakurterraza.
- Marjinak. Ongi zehazturik daude.
- Ortografia. Ez dago ortografia akatsik.

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzak aise bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Gertaeren arteko hurrenkera kronologikoa egokia da. Lehen paragrafoan, narrazioan, deskribapen txiki bat ere tartekatu du eta kasu honetan ongi erabili du deskribapenari dagokion aditz aspektua.
- Paragrafo kopurua. Idazlanaren kanpo egitura egokia da, izenburua eta hainbat paragrafo dituelako eta idatziaren zatien arteko lotura semantikoa antzematen da. Puntuazioa modu egokian erabili du.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da. Eskatutako lanari erantzun dio (xede eta luzera). Argi eta garbi hautematen dira pertsonaiak eta ekintzak.
- Perpausak. Ideia osoak adierazten dituzte.
- Joskera. Alderdi honetan ez dago aberastasun handiegirik, nahiz eta denbora antolatzailearen bat erabili duen (*“Beranduago”*, *“Batzueta”*).
- Pertsonaien ezaugarritzea. Argi hautematen dira pertsonaiak, lekuak eta ekintzak, hau da, nork zer eta noiz egiten duen.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Perpausak modu zuzenean erabili ditu. Sintaxi aberats samarra erakutsi du, zenbait mendeko perpaus erabili dituelako: aditza jokatura duen denborazko bat (*“bukatu genuenean”*) eta aditz jokatugabeko hiru helburuzko (*“Betetzeko”*, *“Aurkitzeko”* bitan).
- Aditzak. Aditzak eta aditz-denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Oro har, zuzentasunez erabili du.
- Erregistroa. Maila idatziari dagokion erregistroa modu egokian erabili du.
- Lexikoa. Modu egoki eta zehatzean baliatu du hiztegia.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntu dira.

